



Mugikortasun Astean kale Nagusia jolasleku.- Herri kiroletan, Segway-aren gainean ibilbidea egin edota ONCEren joko didaktikoak probatzeko aukera izan zuten haur eta gaztetxoek asteazken arratsaldean kale Nagusian. Atzo berriz, hiri barruan bizikleta erabiltzeari buruzko ikastaroa egin zen eta gaurkoan bizikletek hartuko dituzte Lasarte-Oriako kaleak. "Bizikleta Festa" egingo da Okendon, 16:00etatik 19:30etara. Bizikleten martxak izango dira, adinen arabera banatuta. Horrela, 16:00etan 2-6 urte bitartekoak aterako dira triziklo edota motor txikian. Handik ordu erdira 7-11 urtekoen txanda izango da eta 17:00etan, 12 urtetik gorakoena. Martxa ezberdin hauetaz gain, bizikleta-jolas ezberdinak ere egongo dira plazan parte hartu nahi duten guzientzat. Okendon ere bigarren eskuko bizikleten azoka jarriko da, 16:30etatik 19:30etara. Bizikletak saldu nahi dituzten herritarrek azokan utzi beharko dituzte, 15:00etatik 16:30etara. Hori bai, saltzen ez badira, beraien bila pasa beharko dute jabeek 19:30etatik 20:00etara.

3 HIRIGINTZA EHBilduk argibideak eskatuko ditu hirigintza politikaz

PSE-EEK azken urteetan jarraitutako hirigintza politikaren harira EH Bilduk zalantzak dituela esan zuen agerraldian. Zehazki Teresategiko lurrak gainbaloratu zituen hirigintza hitzarmenaz ogasun eta hirigintza batzorde bereziak egiteko eskatuko duela iragarri zuen.

4 EUSKARA Udalak ARGIArekin hitzarmena sinatu du

ARGIAK Udalak herriko merkataritza sustatzeko martxan jarritako Tratu on bat markarekin bat egin du. Hitzarmena asteazkenean sinatu zuten aldirariaren egoitzan. Alkateak honek duen garrantzia azpimarratu zuen eta elkarlanerako borondatea agertu zuten bi aldeek.

5 PARTE-HARTZE Sasoetako auzotarrekin prozesua abian

Espazio ireki bilakatu nahi ditu udalak Sasoetako egungo pasabide ilun eta luzeak. Hori egin aurretik, diagnostikoa egingo du herriko eragileen eta Sasoetako auzotarren laguntzarekin. Dena egituratu eta proposamenak biltzeko, parte-hartze prozesua jarri du martxan udalak.



- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak



www.electricidadarregui.com

Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 361080 Tel./Faxa: 943 372521

Neure kabuz



Asier Odriozola

Eskozia

Hau da hau itsu itsuan idaztea. Artikulu xume hau irakurtzen duenak, interes pittin bat jarri badu behintzat honezkero jakingo du zer gertatu den Eskoziako independentziaren galdeketa. Idazten ari denak ordea jakinmin bezala jakiterik ez duela ari da hitzak elkartzen. Beraz, ez dezala inork gertatuaren analisi edo iritzirik espero!

Emaitza ezagutu arteko usteak ordea zenbait gogoeta egitera narama. Hasteko, eskoziarrek nahi dutena geratu dela isladatuta garbi garbi. Alde txikiarekin seguru asko baina biztanle guztiak eduki dute beren nahia agertzeko aukera. Ez du asko ematen baina asko da iritzia ematea, ia ez delako inon eskubide hori gauzaten.

Agian, Downing Streeteko gobernuak, Cameron jaunak, ez zuen espero independentzia lealeak hainbeste haziko zirenik Eskoziaren baina txikia iruditzen bazitzaion ere, arriskua hartu zuela ezin uka. Hor ibili da kanpainaren amaiera aldera estu eta larri Edimburgon bertan EZekoaren aldeko jarraitzaile kopurua puztu nahian. Bera bakarrik ez, Gordon Brown Lehen Ministro ohi laboristak ere BAletzaren kalteak eta arriskuak dantzatu ditu beldur aurpegiarekin eta beldurra zabalduz eskoziarren artean. Joku zikina baina larrialdi egoeratan politiko gehienek egingo luketena.

Eta bestaldean, Alex Salmond independentista, Eskoziarren artean gehiago osoz gobernuan dagoen politiko ausarta. Gehien goa lortzen ez badu ere, dagoeneko garaipena eskuratua duena, inork ez baitzuen uste Britainiar Inperioko zutabeak kolokan jar zitezkeenik ere. Itsu itsuan hasitako artikulua itsu itsu esan dezakedan zerbaitekin amaituko dut: ez naiz batere inperio zalea.

Zorion agurrak




Adei

Zorionak txapeldun!! Polittena zea!! Pila bat maite zaitugu, familiaren partez.



Uxue

Zorionak printzesa! 4 muxu potolo etxeko partetik!



Unax

Zorionak Unax! Bost urte hauetan oso zoriontsu egin gaituzu! Aita, ama, Oier eta Maddiren partetik.




Nahia

Zorionak! Txokomarrubizko muxu pila lankideen partetik!!



Nahia eta Miren

Zorionak sorgintxoak!! Muxu handi bat bana aitatzko eta amatxoren partez.



Larraitz

Zorionak!!!! Zazpi muxu haundi familiaren partez!!!



Iñaki

Zorionak Ttakuneko lankideen partez! 30ak gertuago dituzu, winter is coming...



Pili

Zorionak!!!! txokomarrubizko hogeit hamar lankideen partez!



Eneritz, Aizpea eta Malen

Zorionak hirukote! Espero degu zuen urtebetetze egunetan zoragarri pasa izana. Muxu potolo potolo bat familiaren partetik!



Nerea, Maider eta Gorka

Zorionak hirukote! Dagoeneko pasa zaigu opor itzulerako depresioa beraz, zorionak abuztuko dream team-ari lankideen partez.



Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.info web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Lan-eskaria

- Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko interna moduan lan egiteko prest. 611309462/622699701
- Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko astean zehar, jai egun eta asteburuetan... lanerako prest. 943404015/606661048
- Emakumea eskaintzen da interna moduan edo orduka arratsaldean etxeko lanak, garbiketa, platerak garbitu edo helduak zaintzeko. Esperientzia eta paperak dauka. Harremanetarako, 619 803 199.
- Euskal Filologian lizentziatua haur, gazte

nahiz helduei euskara klaseak emateko prest. Haurrekin esperientzia handikoa, gainerako ikasgaietako indartze gisa ere jardungo nintzake. Kontaktua: 679806423 (Ane)

- Gizon nagusiak edota tabernan lan egiteko mutila prest. 943365149

Neska lan bila externa edo interna moduan pertsona nagusiak, umeak zaintzen edo garbiketara. 604117167

Salerosketak

- Garaje ixia saltzen da erdialdean, Zapategi kalean. 14 metro karratu. ditu 22.000 euro. Telf: 607 491 663, Aritz.

Heriotzak Jaiotzak



Jaiotzak

- Mikel Medina Mateo, irailaren 10a.



Heriotzak

- Jose Sanchez Acosta irailaren 17an, 94urte zituela.
- Juana Artano Lujambio irailaren 14ean, 89urte zituela.

Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

- Ostirala, 12**
Gil, Kale Nagusia 24 943 361529
- Larunbata, 13**
Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea 943 361774
- Igandea, 14**
Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea 943 361774
- Astelehena, 15**
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6 943 363549
- Asteartea, 16**
Urbistondo, San Frantzisko 1 943 366567
- Asteazkena, 17**
Gandarias-Urbe, l. de Loyola 9 943 019521
- Osteguna, 18**
Orue, Jaizkibel plaza 2 943 362652

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Aizpuru, Latxunbe Berri 11,
Hernani, Tel.: 943 336 077

Larrialdi telefonoak


- Osasun Zentroa 943 007960
- DYA 943 464622
- Gurutze Gorria 943 363953
- Udaltzainak 943 362442
- Ertzaintza 943 288888
- SOS Deiak 112

Udalaren telefonoak

- Erregistroa 943 376055
- Euskarako Zerbitzua 943 376184
- Kiroldegia 943 376182
- Kulturetxea 943 376181
- Gizarte Zerbitzuak 943 376179
- KIUB 943 361605
- Udal euskaltegia 943 361621
- Muntteri AEK 943 372863

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA UDALA

Laguntzailea



Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maider Azurmendi, Iñigo Gonzalez, Jon Altuna E.

txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola

publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Jone M. Hernandez, Jexux Artetxe, Pako Aizpitarte, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

HIRIGINTZA

PSE-EEren hirigintza auzitan

Ogasun eta Hirigintza batzorde bereziak egiteko eskatuko du EH Bilduk

Argibideak eskatuko ditu Lasarte-Oriako EH Bilduk, PSE-EEk azken urteetan eramandako hirigintza politikaren harira. EH Bilduri "zalantzak" sortzen dizkion hitzarmenetako bat da Teresategiko lurrak "milioi bat euro gehiagotan gainbaloratu" zituen hirigintza hitzarmena. Ogasun eta Hirigintza batzorde bereziak egiteko eskatuko du, inplikaturik egon daitezkeen azalpenak eman ditzaten.



Nerea Sanchez eta Jon Martin, asteazken arratsaldean egin zuten agerraldian.

TXINTXARRI

Lasarte-Oriako EH Bilduk uste du ordua dela PSE-EEk azken urteetan egindako hirigintza politika okerren inguruan zenbait argibide eskatzeko.

Alderdiari zalantzak sortzen dizkion hitzarmenetako bat Teresategi mendiko lurrak "milioi bat euro gehiagotan gainbaloratu" zituen hirigintza hitzarmena da, 2006an sinatutakoa. Hortaz, eskatuko dute Hirigintzako eta Ogasuneko batzorde bereziak dei-tzea, inplikaturik egon daitezkeen politikari eta teknikariak azalpenak emateko.

EH Bilduk jakinarazi zenez, garai hartako udal arkitektoak 1.926.531 eurotan baloratu zituen Teresategiko lurrak, eta bertan dagoen erai-

kina berriz, 150.253,31 eurotan. Lurren metro koadro bakoitzak 74,46 euro balio zituen, eta eraikinarenak 432,67 euro.

"Balore horiek dudan jarri daitezke, txostenean 'Arau Subsidiarioen berrikuspen dokumentuaren baloraziotik interesdun lur' izendatzen baititu. Kontua da dokumentu hori ez zela inoiz onartu eta gainera, behin betirako ezetsi zen iaz", dio EH Bilduk. "Beraz, balorazioa suposizioetan oinarrituta dago, eta udalaren interesen aurka doa", gaineratu zuten.

EH Bilduren iritziz, "asko-gatik" gainditzen ditu 2006ko balorazio horrek errealitatean zegozkien prezioak. "Milioi bat baino gehiagoko aldea dagoela uste dugu, lur horietatik gertu bigarren gerrikoa dagoelako

eta Aldundiak desjabetu zituen lurren prezioekin alderatuz, tarte handia da", zehaztu zuten. "Milioi bat euro galdu ditu Lasarte-Oriako Udalak, enpresa pribatu baten onurarako".

Hirigintza ekimenak

EH Bilduren hitzetan, "Lasarte-Orian gaur arte aplikatu diren etxebizitza politiken ardatz nagusia" hirigintza ekimenak izan dira. 2005ean onartutako Arau Subsidiarioak jarri dituzte adibide gisa; udalerriko nekazal eta industrial lur gehienak urbanizagarri izendatu ziren orduko hartan. "Herritarren etxebizitza beharrak ase baino gehiago, udal ekonomiaren biziraupena eta aberastea bultzatzen zuten arauak", EH Bilduk zehaztu zuenez.

Txiletik iritsitako ikasle berriak

Txiletik etorritako ikasle berriei ongietorria egin zitzaizen astelehenean Usurbilgo Lanbide Eskolan.

Hiru talde etorri dira eta energia berriztagarrien inguruan Zubietan kokatutako eskolan eskaintzen diren ikasketeta ezberdinetan trebatuko dira.

Txiletik 30 ikasle etorri dira Usurbilgo Lanbide Eskolara. Txileko gobernuak emandako bekei esker sei hilabeteko egonaldia egingo dute ikasleek gure artean. Zehazki, eskolatik jakitera eman dutenez, guztiak Usurbil eta Lasarte-Orian alokatutako etxeetan biziko dira euren ikasketak iraun bitartean.

Energia berriztagarriak

Hiru taldetan banatuta, energia berriztagarrien inguruko



Escolako areto nagusian egin zitzaizen ongietorria Txileko ikasleei.

ikasketak egingo dituzte. Batetik eguzki energia termikoaren inguruan ikasten arituko dira batzuk, eguzki energia fotovoltaiakoak besteak eta hirugarren taldea, energia eolikoaren esparruan jardungo da lanean.

Ikasleek egunean lau orduko klase teorikoak izango dituzte eta beste bi ordu klase

praktikoekin. Lanbide Eskolatik azpimarratu dutenez, ez da lehenengo aldia nazioarte mailako ikasleak hartzen dituztela.

Aldi berean, halako ikasketak progamek duten garrantzia azpimarratu nahi izan zuten skolako arduradunek astelehenean egindako aurkezpen ekitaldian.

AISIA

Biyak Batek irteerak antolatu ditu Asturias eta Galiziarra

Asturias eta Galiziarako hainbat leku bisitatzeko aukera edukiko dute urriaren 13tik 21era Biyak Batek antolatutako irteeran izena ematen dutenek. Interesa dutenek astelehenean aurrera eman beharko dute izena; bidaiaren prezioaren erdia ordaindu beharko dute izena ematerakoan.

397 euro ordaindu beharko dituzte bazkide direnek eta logela bikoitza nahi dutenek; bazkide ez direnek berriz, 447 euro. Bakarkako logela nahi dutenek 120 euro gehiago ordaindu beharko dituzte. Zaharren Egoitzan emango dute informazio gehiago, 10:30etatik 12:30etara.

GASTRONOMIA

Udazken festako sardina afaria Zabaletan

Udazkenari harrera egiteko sardina afaria antolatu dute Zabaleta auzoan, urtero bezala. Datorren ostiralean egingo da afaria, Antonio Blas plazan, arratsaldeko 20:30ean. Giro ederra beraz auzoan, Zabaleta Auzolan batzordearen eskutik.

KULTURA

Atondu euskal jantzien inguruko hitzaldi-tailerra

Urriaren 18an Lasarte-Orian ospatuko den Euskal Jaiari begira, euskal jantzien inguruko hitzaldia antolatu da "Atondu: Hitzaldi-tailerra". Irailaren 25ean egingo da, Manuel Lekuona kultur etxeko Hitzaldi aretoan, arratsaldeko 18:30etatik 20:30etara eta Ane Albisu Iriarte izango da hizlaria.

Ekintzak bi zati izango ditu: hitzaldia eta tailerra. "Festarako jantziak azken 100 urteotan, jantzeko moduaren garrantzia" izango da hitzaldiaren gaia. Tailerrean berriz, Albisuk erakutsiko du nola jantzi euskal jantzi tradizionalak. Horretarako, hitzaldi-tailerrera joaten direnek euren zapiak eta mantalak eraman beharko dituzte.

KULTURA

Ikastaroak Manuel Lekuonan

Eskaintza zabala dakar herriko kultur etxeak aurten. Dantza ikastaroak, batetik: gaurtik 30era artekoa da izena emateko epea, Manuel Lekuonan bertan. Prezioak 31,30 euro (errolatuak) edo 53,80 euro (errolatugabeak). Urriaren 7an hasiko dira. Ikastaro gehiago ere badituzte: oroimen tailerra, literatura... Matrikula-epa berdina da, baina prezioak ez: 27,70 euro edo 48,70 euro.

Bertan behera geratu da azoka tematikoa

Asteburu honetan Isla Plazan egitekoa zen erakusketa tematikoa ezerezean geratu da, "erakusketa txukun bat antolatzeko ez direlako behar beste artisau aurkitu", Udaleko Kultura, Hezkuntza eta Euskara sailtako zuzendari Boris Nogalesek ohar baten bitartez jakinarazi duenez.

Iraila hasieran jakinarazi zuen enpresa antolatzaileak "arriskuan" zegoela Isla Plazako erakusketa tematikoa, ez zeudelako nahikoa artisau. Gertaer horren berri izan bezain laster, kulturako batzorde urgente bat egin zen udaleko esparru sozioekonomikoekin eta Aterpeko ordezkariarekin. Azoka bertan behera utzi baino lehen adostu zuten beste konponbide bat bilatzea: "Kokaleku berri

bat topatu eta artisau berriak aurkitzen saiatzea", Nogalesek esan duenez. "Hala ere, ez da artisau berririk lortu; hori dela eta, denon artean erabaki dugu erakusketa bertan behera uztea.

Beste aukera batzuk

Nogalesek zehaztu du hasi direla lanean dagoeneko, beste aukera batzuk aztertuz: "Udalerrri gisa herriko esparru ekonomiko garrantzitsuenetan inbertitzen jarraitzea interesatzen zaigu. Kultura programazioan egiten den inbertsioak eta kale dinamizazioak diru sarrerak ematen dizkio merkataritzari eta bereziki ostalaritzari. Horregatik, pentsatzen dugu garrantzitsua dela gure aukeren arabera laguntzen jarraitzea".

Udalak hitzarmena sinatu du ARGIArekin

Tratu On Bat markaren sutapenean lagunduko du herrian kokatuta dagoen aldizkariak

Irailaren 27an Usurbilen egingo den ARGIA Eguna dela eta ostiralean, irailaren 26an, kontzertua egingo da Manuel Lekuona kultur-etxean komunikazio proiektuaren alde. Asteartean sinatutako hitzarmenarekin, Lasarte-Orian egoitza nagusia duen ARGIAk udalaren Tratu On Bat marka sustatzeko konpromisoa hartu du. Bi aldeek lanean jarraitzeko borondatea azaldu zuten.

TXINTXARRI

Pablo Barrio alkateak sinatu zuen asteazkenean Bego Zuza ARGIAko lehendakariarekin elkarlanerako hitzarmena.

Alkateak herrian egoitza nagusia "aspalditik" duen aldizkariarekin sinatzen den elkarlanerako lehenengo egitasmoa dela aipatu zuen sinadura ekitaldian.

Udaletik azaldu moduan, hitzarmen honetan jasoz denez, ARGIAk bat egiten du udalak herriko merkataritza suspertzeko azken hila-beteetan lantzen ari den "Tratu On Bat" markaren sustapenarekin TSST autobus konpainiak eta duela gutxi Hipodromoak egin bezala.

"Herrian dauden beste

enpresek egin duten bezala, atxikimendua azaldu eta markaren zabalkunde laguntzeko urratsa ematen du ARGIAk hitzarmen honi esker. ARGIA aldizkaria, Ametzagaiña taldearen barruan gure udalerriko enpresarik indartsuenetako bat dugu eta herrialde mailako proiektio handia duen komunikabidea da".

Honen truke, ARGIA Eguna baino lehen, hain zuzen irailaren 26an, datorren ostiralean, Manuel Lekuona kultur-etxean egingo den kontzerturako aldizkariak aretoa baliatu ahal izango du kosturik gabe.

Bi aldeak pozik azaldu ziren akordioarekin izan ere "borondatea dago elkarrekin lanean jarraitzeko".



Bego Zuza eta Pablo Barriok asteazkenean sinatu zuten hitzarmena.

Zuzak aipatu zuenez, "gure Lasarte-Oriako parte gara eta gure esparrutik herriari eskaini diezaiokegun egiteko prest gaude".

Pablo Barriok azaldu moduan, erakuslehoi ona da datorren asteko kontzertu hau gure herriarentzat, "Euskal Herri osotik iritsitako Argiazaleak gerturatuko dira Lasarte-Oriara ostiralean eta gure herriko merkataritza eta

ostalarientzat ona izango dela uste dugu".

Irailaren 26an kantaldia

Manuel Lekuonan egingo den ARGIAren aldeko kontzertuan Mikel Urdangarin, Anari, Pier Paul Berzaitz, Petti, Estitxu Pinatxo, Alboka Taldea, Bide Ertzean eta Jon Basaguren izango dira.

Sarreraren prezioa 15 eurokoa da eta dagoeneko

salgai daude Jalgi kafe antzokian, kultur-etxean eta ARGIAren egoitzan.

Agerraldian, Lasarte-Oriako euskaltzaleak animatu nahi izan zituzten ARGIAtik honetan parte hartzea baita larunbatean Usurbilen egingo den ARGIA egunera gerturatzeko ere.

1982 eta 1992 artean ospatutako eguna berreskuratzea nahi izan du aldizkariak.

Eskoziako erreferenduma herrian nabari

Asteartean burutu zen abuzeramaileen batzordean Eskozian ostepenean egingo zen galdeketa inguruan aritu ziren. Adierazpen instituzional bat aurkeztu zuen EH Bilduk, bandera eskoziarra Udaletxe zaharreko balkoian jartzea proposatzen zuena. Gainontzeko alderdien babesarekin, onartua zen adierazpen hori.

Honakoa dio testuak: "Urteetako ibilbidearen ondoren, Eskoziar herriak bere etorkizuna libreki erabakiko du datorren irailaren 18an. Eskozian, bertako herritarrek hartuko dute hitza; eta herritarrek izango dira, Eskoziak zer nolako antolaketa politikoa izan behar duen erabakiko dutenak.

Irailaren 18an Eskozian egingo den erreferendum-a, herrien askapen prozesuaren ibilbidean beste urrats garrantzitsu bat izango da. Eskoziarrek, dagoeneko beren herriaren etorkizunaren jabe dira, eta laister batean, Katalunia, Euskal Herria eta munduko hainbat nazio ere eskubide hori egikaritzeko dugu. Herrien askatasunaren aldeko atzerazineko prozesu

bat abian dagoelako mundu mailan.

Egun historiko honen aurrean, honako adierazpen hau egin nahi dugu instituzio honetatik:

1.- Eskoziar herria zoriondu nahi dugu, libreki etorkizuna erabakitzeko burutzen ari diren ariketatik. Herri orok duen eskubidea praktikara eraman da.

2.- Munduko herri askeen historiarako geratuko den data izanik, eta Eskoziar herritarrek beraien etorkizuna libreki erabakitzen ariko diren egunean bertan, gure babesa adierazteko, Eskozia bandera jarriko dugu instituzioaren fatxada nagusian, ikusgarri eta lehentasuneko izango den toki batean".

Mosaiko erraldoia

EH Bildu alderdiak deituta, 200 bat pertsonako mosaiko erraldoia egin zen bart Okeno plazan, Eskozia erreferendumari atxikimendua emateko. Hainbat herritan deitu ziren gisa honetako ekintzak Eskozia erreferenduma babesteko eta Lasarte-Orian bat egin nahi izan zuten hainbat herritarrek.



Eskoziako bandera ikusi daiteke Udaletxe zaharreko balkoian.



EH Bildu deituta mosaiko erraldoia egin zen Okendon bart.

Sasoetako parte-hartze prozesua, prest

Astelehenean izango dute proiektuaren berri auzotarrek, Gaztelekuan, 18:00etan

Espazio ireki eta arkupe bilakatuko ditu Lasarte-Oriako udalak Sasoetako gaur egungo pasabide ilun eta luzeak. Hori egin aurretik, espazio horiei definizio bat bilatuko diete. Horretarako parte-hartze saio batzuk antolatu dituzte, Hiridunak talde teknikoak zuzenduko dituenak. Astelehenean izango da hurrengoa, Gaztelekuan, 18:00etan. Bilera garrantzitsua izango da, Sasoetako bizilagunei aurkeztuko zaielako proiektua. Udaleko ordezkariak, udal arkitektoak eta Hiridunak talde teknikoak emango dituzte egitasmoaren xehetasunak.

TXINTXARRI

Sasoetako bizilagunen beharrezko aldatu egin dira, baina auzoko espazioak ez ditu asetzen behar horiek. Horregatik, pasabideak bota eta espazio libreak sartuko dira. Lehenago, ordea, definitu egin behar da espazio horiek izango duten erabilera". Hitz horiekin definitu zuen Pablo Barrio alkateak Sasoetako espazio publikoa herritarrekin egokitzeko prozesua, Gaztelekuan asteartean egin zen bileran.

Sasoeta auzoko zenbait behe solairu eraitsi eta espazio publiko berriak sortuko dira. Hori egin aurretik parte-hartze prozesu bat jarri du udalak martxan, espazio publiko horien erabilera eta

diseinua definitzeko, auzotarren iritziak kontuan hartuta.

Definizioari forma emateko parte-hartze saioak antolatu dira, Hiridunak talde teknikoak zuzentzen dituenak. Asteartean egin zuten lehen saioa herriko eragileekin, Gaztelekuan, 19:00etan. Orain arte egindako lana azaldu zitzaizen eta baita lantzeke dagoena ere.

Bilera garrantzitsua

Astelehenean antolatu dute hurrengo bilera, parte-hartze prozesuaren barruan. Hiridunak taldekoek "garrantzitsua" izango dela zehaztu dute, Sasoetako bizilagunei aurkeztuko zaielako 'Sasoeta Sasoi-tu!' egitasmoa. Gainera, udal arkitektoa ere Gaztelekuan izango da astelehenean



Asteartean egin zen lehenengo parte-hartze saioa, Gaztelekuan, 19:00etan.

18:00etan, auzoko eraspen prozesuari buruz hitz egiteko.

Lau fase

Sasoetako espazioen definizioa, erabilera eta egoera aztertzeaz gain, herri osoko espazio publikoak ere aztertuko ditu Hiridunak talde teknikoak. Astearteko bileran azaldu zutenaz, lau fasetan burutuko dute lan hori.

Lehena bukatu dute jada, 'Prestaketa' izenekoa. Hiru hilabetetan egin dute: uztaila, abuztua eta iraila. Bertan, herriko espazio publikoak identifikatu eta euren errealitatea ezagutu dute. Gainera,

udaleko alderdi politikoekin elkarrizketak eduki dituzte euren iritziak jakiteko, eta azkenik espazio publikoak behaketa bat egin dute.

Behin fase hori bukatu dutela, bigarrena jarriko dute martxan datorren astean: herri-eskalako diagnostiko bat egingo dute, bi tailerretan banatuta. Asteartean egingo dute lehenengoa, 18:00etan; herriko espazioen diagnostikoa eta problematika egingo dute. Hurrengoa hilaren 30ean izango da, ordu berean; egun horretan aztertuko dute zer aldatu eta hobetu daitekeen espazioetan.

Tailer horiek herritar orori eta zuzenduak izango dira.

Hurrengo bi faseetara ere edonork joateko aukera izango du, baina Sasoetako auzotarrei bereziki zuzendutakoak izango dira.

Auzo-eskalako diagnostikoa egitea izango da hirugarren fasea. Urrian egingo dituzte bi tailer, 21ean eta 28an, 18:00etan.

Laugarren fasean berriz, Sasoetako espazio publikoaren erabilera proposamenak jasoko dira. Azaroan egingo dute, bi saiotan, 8an eta 15ean. 18:00etan izango dira saio horiek.

Ikasturte berria aurkeztu du Kukukak

Gogo, indar eta ilusio askorekin. Hiru osagai horiekin ekingo diote Kukuka Antzerki eta Dantza eskolak 2014/15 ikasturteari.

Irailaren 29an ekingo dio lanari Kukuka Dantza eta Antzerki eskolak. Antolatzaileek azaldu dutenez, 600 ikasle inguru edukiko dituzte aurtengo, Antzerki eta Dantza talde desberdinetan banatuta.

Berrikuntza batzuk

Ikasturte berria hastearrekin batera zenbait berrikuntza dakartzate Kukutzakoek. "Eskaintza berezia" egingo dute aurtengo gazte eta helduentzat, dantza garaikidean eta antzerkian: ostiral arratsaldetan klaseak emango dituzte, astean zehar herritik kanpo ikasten dutenentzat.

"Beharrezkoa ikusten genuen eskaintza berezi hau egitea, bestela gure ikasleetako batzuentzat ezinezkoa izango li-tzatekeelako klaseetara etortzea astean zehar", azaldu dute antolatzaileek. Bestalde, Euskal Dantza Tradizionalean helduentzat eskaintza egingo dute aurtengo lehenengoz.

Eskaintza zabala

Dantza arloko arduradun Maider Oiartzabalek eman zuen Kukukak aurtengo eskaintzen duenaren berri. Antzerkian LH1etik helduetara arteko eskaintza dago.

Dantzan, hiru lerro desberdin landuko dituzte aurtengo. Euskal Dantza Tradizionalari dagokionez, taldeak HH5etik helduetara bitartekoak izango dira. Euskal Dantza Sorkuntzan modalitateari dagokionez, LH4tik helduetara artekoa da eskaintza. Dantza Garaikidean ere talde ugari egongo dira: DBH1etik hasi eta helduetaraino.

Talde berriak

Kukukako lan taldekoek azpimarratu dute "talde berriak" sortzeko asmoa daukatela, batez ere helduenak. "Izena ematerako orduan zalantzak dituztenak animatu nahi ditugu. 12 urte leanean daramatzan talde batean sartzea ez da erraza; zerotik hasiko dira ikasle berriak", aipatu du Maider Oiartzabalek.

Kukuka Dantza eta Antzerki eskolan izena emateko



Eskaintza zabala eta ikasle asko izango ditu aurtengo ikasturtean ere Kukuka Dantza eta Antzerki eskolak.

edota zalantzak argitzeko 665 847 345 telefonora deitu dezakete, edo bestela, mezu elektronikoa bidali kukukaeskola@hotmail.com helbidera.

Aisialdia euskaraz

Aisialdia lantzea herrian, euskaraz. Hori da Kukuka Antzerki eta Dantza eskolaren helburu nagusietako bat. Murtxe Rodriguezek esan zuen "aukera polita" dela euskaraz ikasten ari direnentzat Kukukaren ekintzetan parte hartzea; "klasetatik atera eta euskara lantzeko" aukera.

ADURIZ DE LASARTE S.A

Odolkia- Solomo ontzutua Solomoa baratxuritan

Etxeko txorizoa Tripakiak- Saltxitxak

Txistorra Basurde burua

Baserri pateak

BERTAKO FABRIKAZIOA

Loidi Barren kalea 3 • 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

LABURRAK.-

Bazpiko bi txirrindulari lehen bosten artean 2013/2014 denboraldiko azken lasterketan

Ibarran egin zuten igandean Bazpi Txirrindulari Eskolako jubenilek urteko azken lasterketa. Xuban Errazkin bigarren sailkatu zen eta Jon Ander Unanue bosgarren. 75 kilometroko ibilbidean, Altzo eta Leaburu igo behar izan zituzten, eta azken honen maldetan erabaki zen lasterketa. Dorian Aramendi lapurtarra gailendu zen Errazkinen aurretik. Iñigo Altunak hamaikagarren egin zuen, Koldo Velasco 23. eta Arkaitz Murillok 46. postua lortu zuen. Emaitza on horiei esker, taldekako sailkapena irabazi zuten eta amaiera bikaina eman zioten jubencil mailan osatutako denboraldiari.



Sei lasarteoriatarrek amaitu dute Kontxako Badiako Igerialdia

Euskal Herri osotik iritsitako 629 igerilarik 2.220 metroko zeharkaldia egin zuten larunbatean Donostian, Kontxako Badian. Tartean ziren sei herritar, eta emaitza onak eskuratu zituzten. Xabier Elizegik sailkapen orokorrean 17. amaitu zuen 31:47ko denbora eginda, herritarren artean bigarrena Juan Vicente Martin izan zen 33:49ko denborarekin, hirugarren Izaskun Salazar izan zen 37:39ko kronoa markatuta, laugarren Igor Amantegi sailkatu zen 40:13ko denborarekin, bosgarren David Sanchez izan zen 47:19rekin eta azkenik Javi Lopezek 51:50 behar izan zuen igerialdia amaitzeko.

Maialen Chourraut Munduko piraguismo Txapelketan arituko da AEBetan, KI mailan

Ama izan ostean, goi-mailara itzulita da Maialen Chourraut piraguista lasarteoriatarra. Asteburu honetan urteko hitzordu garrantzitsuen du Ameriketako Estatu Batuetan, Maryland estatuko Deep Creek kanalean. Ohi bezala, KI mailan hartuko du parte. Irailaren 2az geroztik dago Chourraut Estatu Batuetan, Xabier Etxaniz bikote eta prestatzailea eta Ane txikia alboan zituela zeharkatu zuen Atlantikoa. Oroitzapen onak ditu Munduko txapelketaz. 2009. urtean, Seu d'Urgellen, Katalunian, zilarrezko domina kolporatu zuen eta 2011. urtean berriz, brontzea jantzi zuen Bratislavan, Eslovakian jokaturako Munduko Txapelketan. Denboraldi honetan, Seuko Munduko Kopako proba irabazita da herritarra eta sasoi onean dago.

ERRUGBIA.-

Debuta Ohorezko Mailetan

Vegak, Rekondok eta Puertasek lehen aldiz jokatu dute elitean

Beltzak errugbi eskolak ez du seniorren talderik, hori dela eta, inguruko herrien harrobi lanak egiten ditu. Lasarte-Oriako eskolak gaztetxoekin egindako lanak emaitzak ematen ditu gainera. David Vegak, Xabier Rekondok eta Jon Ander Puertasek estreinakoz jokatu dute elitean.



Xabier Rekondo, Jon Ander Puertas eta David Vega gazteak Gipuzkoako selekzioarekin.

TXINTXARRI

David Vega eta Xabier Rekondok debuta egin zuten larunbatean Ohorezko B mailan, Babyauto-Zarautz taldearen koloreak jantzita. Plentzian (Bizkaia) jokatu zuten ligako lehen jardunaldia Uribealdearen aurka.

David Vegak partida osoa jokatu zuen titular gisa eta Xabier Rekondo 60. minutuan zela iratu zen. Bi hauekin, bost dira jadanik Espainiako bigarren mailan debuta egin duten Beltzak; Ander Rekondo, Unai Uruzola eta Imanol Galarragarekin batera.

Partida galdu egin zuten herritarrek. 32-10 menderatu zuen Uribealdeak Zarauzko taldea, nahiz eta Babyauto izan zen norgehiagoka dominatu zuena. Hala ere, liga hasi besterik ez da egin.

Puertas Ohorezko Mailan

Igandean berriz, Jon Ander Puertas gazteak debuta egin zuen Espainiako Ligako maila nagusian.

Jokalaria lasarteoriatarrek Hernanin jokatzeko du gaur egun. Jokatu bakarrik ez, bera da baloiari ostikoa emateko ardura duen gizona. Ez zuen lehen estraineko partida xamurra izan ordea Puertasek, 0-38 galdu zuten hernaniarrek Landare zelaian "La Sanboiana" talde kataluniar indartsuaren aurka. Aurten ere, mailari eustea izango da Hernaniren helburua.

Etorkizun handia duen errugbilaria da Puertas. Iaz esaterako, Espainiako selekzioak deitu zuen 18 urtez azpiko mailan, Lisboan, Gazteen Europako Txapelketa jokatzeko eta orain, gorengo mailan egin du debuta.

Gaztetxoak, ikasten

Bestalde, kategoria txikitzen ere izan zen partidarik asteburuan. ZRT/Beltzak taldea Bera Beraren aurka aritu zen Zarauzko Asti zelaian.

Denera hiru neurketa jokatu zituzten. 18 urtez azpiko mailan, 5-0 irabazi zuten herriko eta Zarauzko mutilek osatzen duten talde mistoak.

16 urtez azpikoetan, Bera Bera izan zen garaile. Donostiarrek 15-24 garaitu zuten Jantxo Prieto eta Jose Mari Nuñez herritarrek zuzentzen duten taldea.

14 urtez azpikoetan mailan ere, Bera Berak irabazi zuen. Den den, gehienbat taldea osatzen duten 40 gaztetxoekin jokatzeko aukera ematea zuen helburu Manu Pelaez, Ritxar Espinosa eta Xabi Castaño zarauztarraren taldeak.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 20

Zubieta, 11:30ean

Real Sociedad - Ostadar SKT
Kadeteen Euskal Liga,
bigarren jardunaldia.

Michelingo kirol-gunea, 15:30ean

Ostadar SKT - Urnieta KE
Jubenilen lehen maila,
lehenengo jardunaldia.

Añorga, 17:30ean

Añorga KKE - Ostadar SKT
Ohorezko Jubencil maila,
lehen jardunaldia.

Andoain, Ubitarte zelaia, 18:00etan

Euskalduna SD - Texas CF
Erregionalen lehen maila,
lehenengo jardunaldia.

Igandea 21

Michelingo kirol-gunea, 10:30ean
Ostadar SKT - Beti Gazte
Ohorezko Erregional maila,

bigarren jardunaldia.

Tolosa, Usabal zelaia, 11:15ean

Danena-Amaroz KE-Texas CF
Jubenilen lehen maila,
lehenengo jardunaldia.

Urnieta, 11:30ean

Urnieta KE - Ostadar SKT
Kadeteen lehen maila,
lehen jardunaldia.

ATLETISMOA

Larunbata 20

Irun, 20:30ean

Herriko hainbat korrikalarik 6,2 kilometroko luzera duen Irungo III. gau-krosean parte hartuko dute iluntzean.

Zarautz, Munoa, 17:15ean

Herriko hainbat korrikalarik 8km-ko ibilbidea duen I. Itsas Krosa Krosean parte-hartuko dute Zarautz eta Getaria artean.

Elgoibar, 20:00etan

Herriko hainbat korrikalarik 8km-ko ibilbidea duen Elgoibarko V. Gau Krosean parte-hartuko dute.

Igandea 21

Usurbil, 11:00etan

Herriko hainbat korrikalarik 10,75km-ko ibilbide luzean ala 5,2km dituen laburrean parte hartuko dute VII. Baxurde Krosean.

Donostia, 11:00etan

Herriko hainbat korrikalarik 10km-ko ibilbidea duen Lau Haizetara Krosean parte-hartuko dute.

MENDI-LASTERKETAK

Igandea 21

Uharte-Arakil 10:00etan

Herriko hainbat mendi-lasterkarik Beriango VI. kilometro bertikalean parte-hartuko dute Nafarroan, 5 kilometroko proba gogorra izango da igandekoa.

PATINAJEA

Larunbata 20

Getaria, 16:15ean

Herriko hainbat patinatzailek
Getaria-Zarautz-Getaria 15
kilometroko ibilbidea osatuko dute.

TXIRRINDULARITZA

Igandea 21

Andoain, 9:00etan

Herriko hainbat mendi-bizikleta zale 42 kilometro eta 1.300 metroko desnibel positiboa duen LEITZaran proban irtengo dira.

ERRUGBIA

Larunbata 20

Zarautz, Asti zelaia, 17:00etan

Herriko bost errugbi jokalarik Babyauto-Zarautz taldearekin jokatu dute Independiente Bathco Santanderren aurka. Ohorezko B Maila, bigarren jardunaldia.

Hernani, Landare

Babyauto-Zarautz B taldeak
Hernani B, La Única A, Babyauto
Zarautz B eta La Única B
taldearekin lagunarteko torneo bat
jokatu du.

PIRAGUISMOA

Ostirala 19 - Igandea 21

AEB, Maryland

Maialen Chourraut herriko piraguistak Ur Bizietako Munduko Txapelketa lehiatuko du KI mailan, Ameriketako Estatu Batuetako Deep Creekeko kanalean. Ama izan ostean, goi-mailara itzuli da kirolari lasarteoriatarra.



Agenda

Larunbata 20, 19:30, Okendo plaza



Musika kalean

Udalak sustatutako Kultur Kale zikloaren baitan antolatutako kontzertua izango da bihar Okendo plazan entzungai. Behi Bi Blues taldeak emanaldia eskainiko du 19:30etatik aurrera. Taldean, kantaria eta gitarra jotzen Azkater Pelox bergararra dago, hainbat taldetatik pasatako musikaria. Aho-soinuarekin berriz, Gaizka Azkarate, aurretik "Zuhaitz zatixuak Blues Band" taldean aritutakoa. Bestelako zertzeladak alde batera utzi gabe bluesaren bidean bat eginda abiatu dira formatu txiki eta erosoan eurek esaten duten moduan. Dantza egiteko Rhythm and Blues eta rockabilly abestiak eskainiko dituzte.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIAN

Irailean zehar

Mundu Bat GKEk antolatuta Carmen Caballero argazkilaria Kolonbiako egoerari buruzko argazki erakusketa ikusgai.

VILLA MIRENTXUN

Irailak 20, 21, 26, 27 eta 28

Antxota, Lasarte-Oriako Artisten elkar- teak antolatu du erakusketa. 18:00tik 21:00ra izango da zabalik.

Bestelakoak

EXTREMADURA ETXEA

Irailak 20, 21:00etan

Antxota Lasarte-Oriako Artisten elkar- teak afaria antolatu du. Honetan arte- lanak zozketatuko dira. Aurrez izena eman behar da 690286986 zenbakian.

Usurbil

Argia Eguna

ERDIGUNEAN

Larunbata 26, 9:30etik

Ekintza ugari antolatu du Argiak bere eguna ospatzeko Usurbilen. Honetan adin guztiei zuzendutako ekintzak izango dira, 'Nendo Dango' tailer eko- logista, kontzertuak Behi Bi Blues, Eñaut Elorrieta, Perlak eta Esther Sound Sister, bertso saioa Amets Arza- llus, Miren Amuriza, Julio Soto, Uxue Alberdi, Sustrai Colina eta Rosi Lazka- norekin, bazkari herrikoa, omenaldia, argiazaleon topaketa, jolasen txokoa... Komunikazio proiektutik euskaltzaleak honetan parte hartzea deitzen dituzte.

Lasarte-Oria

Musika

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 26, 22:00ean

Irailaren 26an, ostiralean kontzertua izango da Argiaren alde. Mikel Urdan- garin, Anari, Pier Paul Berzaitz, Petti, Estitxu Pinatxo, Alboka Taldea, Bide Ertzean eta Jon Basagurenen kontzer- tua. Sarrera 15 euro izango dira. Sarre- rak eskuratu daitezke aurrez Argiaren egoitzan, Jalgin edo Manuel Lekuonan bertan.

BASAUNDI PLAZA

Larunbata 27, 19:30ean

Adunia taldearen kontzertuak aur- tongo Kultur Kale zikloari amaiera emango dio emanaldi honekin. Doinu zeltiar eta rock-a nahasten dituen abestiak eskainiko ditu. Abuztuan bertan behera utzi behar izan zuten kontzertua eguraldi txarra iragarria zegoela eta.

Dantza

OKENDO PLAZA

Ostirala 26, 21:30ean

Kukai Dantza taldeak bere azken "Gelajauziak" lana aurkeztuko du. Emanaldiaren protagonista dantza eta

kalea dira. Lasarte-Oria dantzan ekime- neko saioa da hau Eusko Jaurlaritzak dantza bultzatzeko sustatutakoa. Saio hau ere uztailean bertan behera utzi behar izan zuen udalak eguraldi txarra- gatik.

Maskota Eguna

ATSOBAKAR PARKEAN

Igandea 21, 10:30etik

Herriko hainbat eragilek bigarren urte- maskotaren eguna ospatuko dute Urbarten. Maskotekin gerturatu eta hainbat joko eta probetan parte har- tzeke aukera izango da.

Herritarren txokoa

Galdutako gauzak

Udaltzainek jakitera eman dutenez, gauza hauek daude jasota, hiru txi- rrinda, bi mugikor, bi pultsera bata urrezkoa, eraztun bat, bi erloju eta belarririkoa. Gauza hauen jabeak direla egiaztatu zuten herritarrek, hilabeteko epea dute Udaltzainen Bulegora hurbildu eta jasotzeko, goi- zez 09:00etatik 13:00etara.

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza izango da Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan hilabetero bezala. Maria Auxiliadoraren meza ospatuko da irailaren 24ean, asteazkena, arratsaldeko 17:00etan.

Xumela entseguak

Xumela kora entseguak irailaren 15ean hasi zituen Landaberri BHI erai- kinean. Entseguak 19:30etik 20:30era egiten dituzte eta honetan parte har- tzea irekia dela gogoratu nahi dute sustatzaileek ikasturte hasiera hone- tan. Euskara ikasten ari diren herrita-

rrak bertaratzea animatzen dituzte batez ere kantuan ondo pasa eta euskaraz aritzeko lagun berriak egite- ko leku aproposa delako.

Odol ateratzea

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan irailaren 29an, arratsaldeko 17:30etik 20:30era. Anima zaitzete, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

Uztaro Kooperatiba

Uztaro Kooperatiba Lasarte-Orian martxan da. Kooperatibaren xedea janarien kontsumo arduratsu bat iza- tearena da, bertakoa eta ekologikoa. Lasarte-Oriako eremua elikatzen duen baratza, Beizaman dago. Astelehenero, Danok Kide elkarteko lokalean banatzen dira barazki eta frutak, garaiak garaikoak eta ekolo- gikoak. Kooperatiba honen proiektua gustuko dutenentzat ateak zabalik dituztela jakitera eman dute. Informazio gehiago eskuratzeko uztarolasarteoria@hotmail.com helbidean.

Hemeroteka

Duela 1062 ale



1999 urteko iraileko lehenengo zenbakian, Aterpeak antolatuko zituen Merkataritzako I. Jardunaldien inguruko informazioa jasotzen zuen TXIN- TXARRIK.

Jardunaldi hauen helburua herriko merkatariek erronka berrien aurrean nola jokatu aztertzea zen. Batetik, eurora egokitzapena nola egin behar zuten aztertuko zuten baita Eroskik ireki behar zuten denda handiaren aurrean denda txikiak zer egin eta zer eskaini behar zuten. Erosteka ohitu- rak aztertzen zituen ikerketa baten berri eman nahi izan zuten ere hitzaldi baten bitartez.

Herriko komertzioek eskaintza zabala zutela erakutsi nahi zuten aldi berean eta herritarrak animatu Lasarte-Orian erosketak egitera. "Herriko merkatariek mugitu egin behar dugu eta herritarrengana iritsi behar dugu. Oztopoak gainditu eta zailtasunei aurre egin behar diegu".

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Gorka Brit Ostadar SKTko jokalaria

“Ilusio berezia piztu dit herriko taldean jokatzeko aukerak”

Ostadar SKTn jokatu du aurten 36 urteko aurrelari lasarteoriatarak

Talde askotan jokatu du Gorka Britek (Lasarte-Oria, 1978): Osasunan, Eibarren, Numancian, Real Unionen... atzerriko ligak ez ditu ezagutu, ordea. Britek berak azaltzen du zergatia: “Taldea aukeratzeko orduan beti lehenetsi izan dut nire ingurukoengandik gertu egotea”. Aurten jokatu du etxetik inoiz baino hurbilago: Ostadar SKTn, herriko taldean. Bikain hasi du liga Ostadarrek, 1-3 irabazi ziolako Hondarribiari; ederki hasi da aurrelaria ere, bi gol sartuz eta hirugarrenaren pasea emanez.

Iñigo GONZALEZ

Lehenengo eta Bigarren mailako zelai garrantzitsuenetan jokatzetik, Michelinen aritzera. Bere herriko taldean, Ostadar SKTn ospatuko ditu golak aurten Gorka Brit aurrelariak.

Javier Aguirreren eskutik egin zuen debuta Lehen Mailan, Osasunarekin, 2002ko abenduaren 15ean. 13 partida jokatu zituen denboraldi horretan lehen taldearekin, eta gol bat sartu. Orduz geroztik, beste 35 (lau Osasunan eta 31 Numantzian, hiru gol sartuz). Bigarren mailan ere makina bat partidu jokatu eta gol sartu ditu. Bigarren B (Real Union) eta Hirugarren mailan (Beasain) pasa ditu azken urteak. Ohorezko Erregionalen maila ezagutuko du aurten.

Herriko taldean jokatu duzu aurten. Zer dela eta?

Hasiera batean Beasainen jarraitzeko asmoa nuen, Ostadarrek herrian jokatzeko proposatu zidan arte. Aukera horri bueltak ematen hasi nintzen, familiarrekin ere hitz egin nuen, eta hemen nago. Ilusio berezia piztu dit herriko taldean jokatzeko aukerak.

Zer moduz ikusten duzu taldea?

Ongi, oso gogotsu. Jokalari

gazte asko etorri dira aurten, baina esperientzia askoko jendea ere badaukagu. Guztiok norabide berean lan egiten badugu eta gogor entrenatzen jarraitzen badugu, denboraldi polita egin dezakegu.

Zein helburu dituzu?

Futbolaz gozatzen eta ikasten jarraitzea, inoiz ez baitiozu uzten gauza berriak ikasteari. Espero dut denboraldi bukarran taldekide guztiak biltzea aldagelan eta gogoratzea zenbat gozatu dugun denboraldi honetaz.

Zenbat gol sartuko dituzu aurten?

Inoiz ez dut kopuru zehatzik esaten. Gauza bakarra esango dut: gustura sentitu naizenean eman dut nire onena, orduan sartu ditut gol gehien. Eta Ostadarren oso gustura nagoenez, ziur golak iritsiko direla. Nire taldekideen laguntzarekin sartuko ditut golak, eta nire golekin taldea lagunduko dut.

Zer aholku emango zenieke juvenilen taldetik aurten igo diren jokalariei?

Beti atera behar direla gauza positiboak denboraldian zehar gertatzen diren gauza guztietatik. Momentu zailak ere bizituko ditugu aurten, baina hortik ere ikasten da. Pazientzia z hartu behar ditugu gauzak, eta taldearengan pentsatu. Jokalari guztiak izango dira garrantzitsuak: asko jokaten

durenak, ordezkoen aulkian daudenak eta lesioen bat daukatenak.

Erregionalen taldean jokatzeari gain, alebinak ere entrenatuko dituzu.

Hala da bai. Lehen eta bigarren mailako entrenatzaile tituluak atera ditut, eta praktikak egin behar ditut orain. Eta non hobeto herrian baino? Eskerrak eman nahi dizkiot Ostadarri, eman didan aukeragatik.

Praktikak egin ostean, hirugarren maila ateratzen saiatuko naiz datorren urtean.

Zer moduzko esperientzia izaten ari da?

Oso polita eta aberasgarria. Kirolene kirol irakaskuntzen eskolan ari naiz entrenatzaile izateko prestatzen. Kurso bat ireki zuten Realeko jokalaria ohientzat, eta nik harrobian jokatu nuenez, bertan ari naiz tituluak ateratzen, taldekide ohi batzuekin batera. Beraiekin klasean egotea, elkarrekin jokatzeko gureneko kontuak oroitzeko... hori ere polita da.

Futbola beste perspektiba batekin ikusten hasi zara?

Argi dago jokalaria eta entrenatzailearen ikuspegiak desberdinak direla. Egia da orain askoz ere arreta gehiagoz begiratzen dudala entrenatzaileen lana, baita nire taldean ere. Jokalari izateaz gain, saiatzen naiz aurtengo entrenatzaileengatik gauzak ikasten: taktika, entrenamendu motak...

Futbol jokalaria ibilbidea laburra da, eta niri ez zaitzkit urte asko geratzen. Futbolaz gozatzen jarraitu nahi dudanez ari naiz entrenatzaile izateko prestatzen. Hala ere, bide luzea dut aurretik; kilometro asko egin behar ditut oraindik.

Entrenatzaile gisa oraindik egin ez dituzun kilometroak, jokalari gisa ibili dituzu... Espero zenuen horren ibilbide oparoa edukitzea?

Realeko harrobian jokatzeko nuenean lehen taldeko jokalaria ikusten nituen, eta amesten nuen egunen batean ni hor egotearekin. Ametsak eta errealitatea ez dira gauza bera, baina zorionez, lan eta esfortzu asko egin eta gero lortu nuen gehien gustatzen



zaidanetik bizitzea: futbolean jokatzeari.

Momentu gogorak pasatu nituen, batez ere lagunekin ezin nuelako nik nahi beste denbora egon. Hala ere, orain bizi dudana guztiaz akordatzeko naizenean pentsatzen dut egindako ahaleginak merezi izan duela.

Realeko harrobian arituzin hainbat urtez, baina Osasunarekin egin zenuen debuta Lehen Mailan.

Hiru urtez aritu nintzen Realaren bigarren taldean, klubak eta nik kontratua etetea erabaki genuen arte. Zapuztuta sentitu nintzen, pentsatzen nuelako Lehen Mailan jokatzeko aukera galdu nuela.

Zenbait taldetan aritu ostean, Osasuna Promesas taldeak fitxatu ninduen. Bi urte nituen lehen taldera iristeko. Gol asko sartu nituen lehenengo jardunaldietan, eta Javier Aguirrek debutatzeko aukera eman zidan.

Nola gogoratzen duzu debutaren eguna?

Hori da beharbada daukadan oroitzapen kuttunena, niretzat esan nahi zuen guztiagatik. Hainbeste ordu entrenatzen, lagunekin pasa ez nuen denbora guztia... hainbeste esfortzu egitearen fruitua.

Deialdian sartu nintzen lehen aldian eduki nuen jokatzeko aukera. Gogoratzen dut lasai nengoela. Hamabost minutuz aritu nintzen eskuin

hegaletik. 1-0 irabazi genuen, Espanyolen aurka.

Soriako Numancian ere jokatu zenituen makina bat partida Lehen Mailan. Zer moduz hango esperientzia?

Hiru urtez aritu nintzen bertan, 2006tik 2009ra arte. Igo aurretik bi denboraldi jokatu nituen Bigarren Mailan Numantziarekin. Oso gustura nongoen bertan eta jarraitzeko asmoa nuen, baina nire semea jaio zen urte horretan. Emazteak eta biok etxetik gertu hazi nahi genuen haurra, ikastolan ikastea... Hori dela eta, aprobetxatuz Irungo Real Union Bigarren mailara igo berri zela, hara joan nintzen jokatzera.

Futbol kategoria asko ezagutu dituzu. Zeinek harritu zaitu gehien?

Bigarren mailak. Esaten da taldeak atzean ixten direla, jokoa oso zuzena dela... eta ez da egia. Oso ongi jokatzeko dute taldeek futbolearen eta asko presionatzen dute. Lehen maila ere harrigarria da, baina jendeak gehiago jarraitzen du eta gutxi gorabehera badaki zer ezaugarri dituen.

Egia da baita ere askoz minutu gehiago jokatu ditudala Bigarren mailan Lehenengoan baino. Esan beharrik ez dago: askoz ere gehiago gozatzen duzu futbolaz berdegunean zaudenean, aulkian zaudenean baino.



Elkarrizketa osorik txintxarri.info webgunean